



**[b]**

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

518. zka.

XIII. urtea

2005eko otsailaren 18a

**Eduardo Arrillaga**

# **Zuri-beltzeko elegantzia**



elgoibar **ikastola**

# eurei dagokie

matrikula itzazu PARTAIDEko ikastoletan

**Matrikulaketa epea:  
otsailaren 14tik 25era**



**elgoibar ikastola**

☎ 943 744441

[elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)





UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

## ZOZOAK BELEARI...

Liburutegian eserita nagoen aukeratik ikusten dudana deskribatuko dizut. 200 bat persona daude, nor bere ordenagailuaren aurrean. Erdiak-edo kaskoak dauzkate belarrietan. Iritsi berriak ez dira beste inoren ondoan esertzen urrunago eserleku liberik badago. Batzuk bazkaltzen ari dira: plastikotan bildutako sadwicha. Guztiek dakite ingelesez biokimikako liburuak ulertzeko bezain ondo eta atzerritarrekin hitz bakar bat ez gurutzatzeko bezain gaizki. Bakarrik bizi dira eta arratsaldero aerobica egiten dute. Ez zaie politika interesatzen. Munduko biztanle dira. Mc Donalds-era joaten dira arratsalde pasa, edo H&M-ra. Helburu handiak dituzte ispiluaren aurrean eta poltsikoan, bihotzburuetan ez kabitze bezain handiak. Kanean ez da botiloirik egiten, manifestaziorik, pasakallerik ere ez. Izugarri begi politikak dituzte, baina ez dakite, ez diete elkarri begietara begiratzen. Larrua gaizki jotzen dute, eta azkar. Kafea azkar hartzen dute, eta gaizki. Autobusak puntu-puntu iristen dira. Eta depresioak. Ez dira haserraten. Polizia miresten dute.

Nahi lukete alkate, ministro, lehendakari askok horrelako gizartea azpian. Gatazka egoeran ere zainetatik gehienara ketchupa isuriko lukeen herria...

Gure eredu omen dira Suedia eta iparraldeko herri hauek, Imanol. Etorkizuna ketchuparekin eta eramateko?

«Nahi lukete  
alkate askok  
Suediakoa beza-  
lako gizartea»

UXUE

«Prozak antide-  
presiboa Bayer  
aspirina bezain  
ezaguna da»

IMANOL

Zure letren gainera igota, Suediakoa gizarte bakartia ikusten dut. Hotz egin arren, elkarrengana arrimatzerik nahi ez duten gizon-emakumeak ematen dute. Eta zu, berriz, jendez inguratuta baina bakarrik sumatzen zaitut. Kezkatuta. Zure begiek ikusten dutenari kontra egin nahian.

Eta hauek dira, orduan, gure eredu? Ez dakit eredu diren, baina ogitartekoa batzeko periodiko-papera alde batera laga eta albalaren alde egin genuenetik, Europa gainera datorkigu poliki-poliki. Hemen ere hasi dira trenak eta autobusak ordurako ailegatzen. Gure iloba txikia lau urte bete aurretik hasi zen hamar arte ingelesez kontatzen. Mintxetako gimnasioak gainezka dauden bitartean, kanean azken txikitero-koadrilen marmarra baino ez da entzuten. Gu ere Urbilera edo Garberara joaten gara zer egin asmatu ezinik gaudenean. Eta gure artean ere, zoritxarrez, Prozak antidepresiboa Bayer aspirina bezain ezaguna egin da.

Aukeran, nik ere nahiago ditut zainetan odola borborka darabilten gizon-emakumeak. Ezezagunen artean lagunak egon daitezkeela sinesten duen jendea. Jateko, kafea hartzeko edo elkarri begietara begiratzeko astia hartzen duten bikoteak. Baina, Suediatik Euskal Herrira dagoen tarte txikitzen doa, Uxue. Hori bai, guri beti geratuko zaizkigu sagardotegiak.



EZ GARENAREN ITXURA EGITEAGATIK, GARENA IZATEARI UZTEN DIOGU



Ernst Jünger

## Zergatik daude kanpaina ezberdinak "AHTrik ez" lelopean?

Azken aldiaren AHTren aurkako mugimendua nahastu xamar dabil; badirudi helburu eta norabide aldaketa batzuk gertatu direla. Orain arte "AHTrik ez" esateak berarekin zeraman borroka antidesarrollista, eta zalantzan jartzen ziren politika suntsitzaileak eta instituzioek inposaturiko gizarte ereduak. Gure ustez, Tren Sozialerako Sareak, AHTren aurka agertu arren, arazo garrantzitsu asko ahazten ditu. Adibidez: garraioaren hazkundera, gizarte ereduak, merkantzien mugimendua eta abar. Bai, egia da proiektua kritikatzeko duela, baina tren eredu bezala bakarrik kritikatzeko du. Beste alde batetik, borroka honetan garrantzi izugarria izan du beti borroka sozialak eta indarrez defenditu izan da talde ezberdinen autonomia. Azken aldiko nahaste berraste honetan izen haundiko talde politiko eta sindikalak ari dira indartzen eta horrek denon ahotsak oihartzun berdina izateko aukera txikitzen du.

Gutun hau gure jarrera argitu nahian idatzi dugu; gure asmoa ez da inorekin harrika hastea. Azaldu ditugun arrazoiak direla eta, ez gatoz Tren

Sozialerako Sarearekin bat, baina guztion arteko komunikazioari eutsi behar diogula uste dugu, AHTren aurkako borroka aurrera egin dezakeela duela sinisten dugulako.

### AHTREN AURKAKO DEBA BARRENAKO ASANBLADA

#### Mila esker

Miskiko partaideok gure kanpainen jasotako laguntzagatik eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu Elgoibarko Udalari, Milagrosaren Elkartekoei, Jubilatuen Etxekoei eta kalean erriak erosi dizkiguten guztiei. Cusco eta bere inguruko auzoetan hasita daukagun proiektuarekin jarraitu ahal izango dugu laguntza horri esker.

Ez dugu ahaztu nahi Mutrikuko Udalak, hain zuzen ere Hezkuntza Batzordeak, eman digun 3.000 euroko dirulaguntza. Dirulaguntza hau Cuskoko auzo pobreenetako bateko haurrei eskolako matrikula eta materiala ordaintzeko izango da. Manco Ccapac ikastetxea Santiago auzo marjinalean kokatuta dago.

GEMA AGIRREGOMEZKORTA

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEko edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituharritaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.

**[b]arren**

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
Publizitateak: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasoena Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZALEA Jaione Unanue KOLABORATZALEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Garrotekategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmuzaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Umuzuno, Unai Villena, Aloitza Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Getxo Koop. E. TRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

Emakume batek esan digunez, **San Rokeko hartzaindegi kanpoan obrak egiten hasi ziren, eta bukatu gabe utzi dituzte:** "San Rokeko hartzaindegian obrak egiten hasi ziren. Lurrean zulo handi batzuk egin dituzte eta obrak, bukatu gabe, gelditu egin dira. Ingurune hura oso egoera kaskarrean dago, eta haurrak jolasean ibiltzeko arriskutsua da".

Pedro Muguruza Etorbideko bizilagun batek esan digunez, **Toletxeko aldapan auto mordo egoten da gaizki aparkatuta:** "Eguneroko kontua da. Auto mordo egoten da Toletxeko aldapan aparkatuta oinezkoi ibiltzeko lekua kentzen. Umeen kotxearekin edo erosketa karroarekin pasatzeko ez da lekurik egoten. Lehen pibote batzuk zeuden, baina apurtu egin ziren eta ez dituzte konpondu. Larraldiren bat gertatzen denean ere, anbulantziak ezin izaten du pasatu, eta gaixoa ahal den moduan, kamillan jaitxi behar izaten dute. Arazo honi irtenbide bat topatu behar zaio lehen bailehen. Pibotea berriz ipini, edo gaizki aparkatuta egoten diren autoei isuna jartzea izan daitezke irtenbide posibleak".



Herritar batek esan digunez, **Artekalen egin dituzten eskailera mekanikoetan ez dituzte ezinduak kontuan eduki:** "Eskailera mekaniko berriak egin dituzte Artekalen eta txalotzekoa da, baina ez dituzte ezinduak kontuan eduki. Behin berrikuntzak egiten hasita, elbarrituak ere kontutan eduki beharko liritekeela iruditzen zait".



## GALDERA

**Noiz irekiko dute Gaztetxe berria?** Gazte koadrila batek, Mupem enpresan gaztetxe berria noiz irekiko duten jakin nahi du. Udaletxera jo dugu eta, esan digutenez, laister hasiko dira beharrezko tramitazioak egiten. Orainxe onartu dira 2005. urterako udal aurrekontuak, eta horixe da egin beharretako bat. Oraindik epe konkretu bat ezin izan digute eman, baina lehen bailehen aterako dituzte Gaztetxea egiteko obrak lehiaketara.

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

## ESKERTZA



2005eko otsailaren 15ean hil zen *Txomin Larreategi Garateren* seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## URRUZUNOREN Luma

### Argazkia

Goxoki kaxa haundi haren barruan galduta igaro zituen egunak, hilabeteak, urteak... auskalo, nork daki zenbat ilargi bete. Beste askoren artean ezkutatuta, anonimotasunanean. Espazioan isolatua, igarotako etorkizunean izoztua, denboraren orratzen artean bahitua. Guztien artean askatu eta bizirik dirauten oroitzapenen mundura gonbidatu zuen. Atzamarren artean babestu zuenean, ezaguna egin zitzaion begitarate hura. Ezaguna eta laguna, baina, era berean, arrotza. Beatrizek, iraganeko Beatrizen argazkiari egiten zion so.

*Eguzkiñe Aranberri*



## BANESAN?


**EDURNE BILBAO**

IMHKO ARDURADUNA

*Debegesak argitaratutako datuen arabera, Debabarrena eskualdean dauden Lanbide Heziketa eta Ingeniaritza zentruetako ikasleen %15,38a bakarrik dira emakumeak.*

- **IMHn nabari al da gizonezkoen nagusitasuna?** Bai, makina erramintaren arloko ikasketak dira, eta tradizioz gizonezkoak nagusi izan dira lanbide hauetan. IMHn ikasleen %8-a neska dira. Joera gorantz doa pixkanaka.
- **Lantegietan gizonezkoak nahiago dituzte oraindik tailerreko lanetarako?** Amatasunak eta etxeko ardurak direla-eta, legeak erraztasunak ematen dizkiete emakumeei, beraz, gizonezkoen aldeko joera oraindik ere nabari da. Halere, enpresa aurreratuetan honelako desberdintasunak desargertuz doazela dirudi.
- **Nola ikusten duzu emakumearen etorkizuna industria munduan?** Oso baliozkoa, beharrak markatuko baitu bere integrazioa. Gizarteko bizilagun kopurua murrizten doan heinean, gaudenontzat lan eskaintza handiagoa izan beharko litzateke eta, beraz, etxeko lanetan aritu beharrean, emakumeek lantegira joateko aukera gehiago izan beharko genituzke. Deslokalizazioa dela-eta agian atzerriko emakumeak izango dira gure enpresetako langileak!

### komikia



*Kokoe 006*

## [AKORDATZEN NAIZ]



**JAVIER ARRIOLA**

1940an jaioa

### «Maittasun kontuak»

**B**atzuek lehentxuago hasiko ziran; beste batzuek, gerotxuago. Behin hogeitau urte ezker, horretan gauzetan hasten zan. *"-Fulano hasi dok fulanakin! -Zela?"*

Guk Mendarotik joera haundixa euki gendun Deba eta Mutrikura; en kanbio, Elgoibarrera gitxixago: San Bartolometan eta holako egunetan bai, baiña gure edadekuak Deba eta Mutriku ezagutzen genduzen gehixago.

Sasoi haretan holako gauzak ixkutuan egitxia hobe izaten zan (*oiñ ere egingo ditxuzue zuek horrek, ez?*): jai arratsaldian 16:30etan hartu tren, eta Mutrikura; eta 20:30etan, buelta. Bixen bitxartian zeozer egitxen bazan... Orduan ez zaguan diskoteka eta hortarikorik baiña, kanpo librian izaten zan. Mendaron erromerixia egitxen zan.

Soinujole bat

egoten zan, beti pieza bat jotzen zaban. Papelito bat ipintzen zebe, eta ez dakitt zer kobratzen zebe, pezeta bi edo, dantzan egitxia. Pertsona bat egoten zan kobratzen, kobradoria esaten gendun. Bi pezeta kobrau, eta txartela ematen zigun.

Deban, Alamedan egitxen zan erromerixia; Mutrikun, plazan. Orduko maittasun-kontuak horrek ziran. Hemeretzi bat urterekin bizikleta bat ingurau gendun arte, beti trenian. Eta trenak justukuak izaten ziran. Azkenengo tren, *eskobia* esaten giñon, hamarretan, baiña haura berandu izaten zan etxera orduko. Etxian esaten gendun *"eskoban etorriko naiz, Debara guaz eta"*.

*"Bueno, aber etortzen haizen zuzen"*, esaten zien etxian.



## [GURE BERBAK]

### Errepikapenak

Gaurkuan errepikapenak hartuko dittugu hizpide. Ahozko jardunian behintzat asko erabiltzen dira, esaten dogunari enfasi edo indar berezixa eman nahixan edo.

Batzuetan erakusliak errepikatzen dira (*hau, hori, haura*); beste batzuetan aditzak, esaldixak edo adjektibuak. Betiere, esaten doguna indartzeko, elkarizketiari beste indar bat emateko.

- *Hori dok markia, hori!*
- *Hi bizi haiz, hi!*
- *Tontuagua haiz, tontuagual*
- *Dedios! Esan banaban, esan naban! Ez naue pakian lagatzen harrezkero.*
- *Egin zaban lana, egin zabanez!*
- *Neka-neka eginda amaizen juat eguna!*
- *Txalet berri-berri-berrixa zonan, gaiñera!*
- *Antonio hori gizon txiki-txiki bat zuan.*
- *Astian-astian kaleratzen da Gure Berbak atal hau.*
- *Bidia ez dok zabala, zabala ez dok. (ordena aldatuz)*
- *Eskerrak horritxi, horritxi eskerrak! (ordena aldatuz)*

*Jesus Mari Makazaga*



### ESKERTZA

2005eko otsailaren 14an hil zen

*Fausto Vitores Merinoren*

emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



EDUARDO ARRILAGA

## ZURI-BELTZEKO ELEGANTZIA

*Edu Arrillaga argazkilari elgoibartarraren lanak makina bat sari eta merezimendu jaso ditu jada. Azkena, oraintsu jakin duguna, Fotografia Popular izenekoa. Bigarren saria jaso du bataioetan ateratako bost argazkiri esker. Erreportaje honetan ikusgai dituzuenak, hain justu. Behin eta beriz erakutsi du berea ikuspegi berezia dela. Esan digunez, "errealitatea erakustea gustatzen zait, baina elegantziaz".*

Edu Arrillaga hitz jario oparoko mutila da. Hitzetan eta hitz egiteko duen moduan nabari zaio argazkilaritza pasioz bizi duela. Munduan zehar ibili izan da kamera eskuan hartuta eta txoko bakoitzean bizi izan dituenak irrikaz kontatzen ditu. Bere memoria pertsonaleko altxor bilakatu diren pasarteak dira.



Fotografia Popular lehiaketaren inguruan kontatu digunez, pare bat bilduma bidali zituen. Bata, saritu dutena, boloetan ateratako bost argazki, eta bestea, dantzalekuetan ateratako erretratuekin osatutakoa. Izan ere, duela zazpi urte inguru, larunbat gauetan lagun batekin elkartzen zen eta dantzalekuz dantzaleku bira egiten zuten. "Guass, Jazz Berri, Txitarro... Ezkutuan eraman behar izaten nuen kamera eta argazki bakoitzean zer aterako zen misterio hutsa zen", azaldu digu.





Bi gai ezberdinei buruzko erretratu-bilduma bidaltzeak badu bere zentzua, "muturreko gaiak aurkeztean, aukera gehiago dago epaimahaikide baten edo beste baten gustuko zerbait egotea tartean". Saritan jaso dituen 3.000 euro inbertituta ditu jada. Esan digunez, martxoa-apirila aldera Dominikar Errepublikara joateko asmoa dauka. Niños del camino gobernuz kanpoko erakundearekin dihardu lanean aspaldian eta litekeena da lan honen ondorioa liburu batean jaso ahal izatea.

Bien bitartean, jakin badakigu gaur, otsailak 18, Madrilgo EFTI galerian Elgoibarko Sokamuturrari buruzko erretratuen erakusketa inauguratu dela eta boloetan ateratako argakiak ere, aurki izango direka ikusgai Madrilgo Museo del Traje-n.



Argazkien bidez Elgoibarko izena eta izana bazter guztietan zabaldu du eta zabalduko du Edu Arrillagak. Bizitza ikusteko eta ulertzeko ikuspegi berezi batetik, zuri beltzez zipriztindutako instantanea magikoak.

## [ PROTAGONISTA ]



Jose Luis **Belloso**

1959ko urrian etorri zen abade Elgoibarrera Jose Luis Belloso mendarotarra. 73 urte bete ditu eta 46 urteren ostean, jubilatzeke garaia iritsi omen zaio. Berak esan digunez, "amak 100 urte beteko ditu irailan eta osasunez ez dago oso ondo. Bera zaintzeko utziko ditut abade lanak. Halako batean ama aldamenetik joaten zaigunean, hainbat zeregin berreskuratuko ditut eta San Lorentzon, esaterako, meza emango dut". Beasaingo auzo batean hasi zituen abade lanak Jose Luisek eta urte bete egin ostean etorri zen gure artera. Otsailaren 27an emango du azken meza.

## [ NOTIZIA ]

### Merkadilloaren gaineko herri galdeketa ez da otsailaren 20an egingo

**E**lgoibar Bizirik Herri Plataformatik jakinarazi digutenez, merkadilloaren gaineko herri-galdeketa ez da datorren igandean egingo. Beraien asmoa Europako Konstituzioaren erreferendum eguna aprobetxatzea zen, baina ez dute baimenik lortu, izan ere, Hauteskunde Batzorde Probintzialak debekatu egin baitie. Legearen arabera, ezin da herri galdeketa bat antolatu beste erreferendum bat bozkatu behar den egun berean.

#### Galdeketa beharrezkoa

Elgoibar Bizirik Herri Plataformak adierazi duenez, Marivi Agirregomezkorta eta bere Gobernu Taldeak ez zuten esan merkadilloa lekuz aldatuko zutenik beren progra-



man: "Beraz, erabaki honen inguruko galdeketa egin behar zaio herritari". Momentuz ez dago beste datarik, baina ekimenak aurrera darrai.

Bestalde, atzo manifestazioa izan zen herriko kaleetan zehar, eta aurrerantzean ere protestak egiten jarraituko dutela adierazi dute.

## [ ZENBAKIA ]

# 93

2004 urtean 93 haur jaio ziren Elgoibarren. Horietatik 53 neska izan ziren eta gainontzekoak, mutilak, 40. Bake epaitegian esan digutenez, 2003an baino gehixeago jaio ziren iaz. Izan ere, 2003an 69 neska-mutiko jaio ziren orotara Elgoibarren. Azken urteotan bilakera goranzkako omen da, antza.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Ama Birjina aurkitu dute Elgoibarko Sigma auzoan. Tomas Barrietabeñak zerbait arraroa ikusi zuen Aitz Bizkar baserriko zelaian. Sasi artean ezkutaturik zegoen, buruz behera. Hurreratu zenean, Ama Birjina zela konturatu zen. Ez dakite nondik iritsi den bertara, ezta zenbat denbora eman duen sasi artean. Momentuz, garbitu egin dute eta Sigmako elizan daukate. Auzokideak oso pozik daude gertakari honekin, eta inork bere jabetza bermatzen ez duen bitartean, ez diotela inori itzuliko aitortu digute.

## Datozen 10 urteetarako Hizkuntza Politika aurkeztu du IMHk



**U**dalarekin elkarlanean, IMHk datozen hamar urteotan Goazen programaren baitan burutuko duen Hizkuntza Politika aurkeztu zuen otsailaren 10ean. Marivi Agirregomez-korta alkatea, Miren Arrate Arrieta Euskara Batzordeko Burua, Joxean Egaña IMHko zuzendari gerentea, Edume Bilbao IMHko euskara arduraduna eta Mikel Urdangarin AHIZE elkarteko euskara teknikaria izan ziren ekitaldian.

### Helburuak

Goazen egitasmoaren bitartez ondorengo helburuak ditu IMHk: euskara

oinarrizko hizkuntza izan dadila lanean, produktuetan, eta barne eta kanpoko harremanetan; beti ere, inguruaren errealitatearekin eta bezero bakoitzaren beharrekin bat datorren eskaintza malgua sustatuz, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Makina Erramintaren Institutuko arduradunen esanetan "erronka handia dugu eskuartean, baina iparra beti begien aurrean izanik, gure helburuen alde egingo dugu lan aurrerantzean".

Honetaz gain, IMHk joan den urtean euskararen normalkuntzaren alde egindakoaren berri eman zuen Edume Bilbao.

## Gipuzkoako uren partzuergoak kudeatuko ditu ur tasak



Elgoibarko herritarren etxeetara hurrena iritsiko diren ur eta estolderiaren tasei dagozkien ordainagiriak, Gipuzkoako Uren Partzuergotik etorriko dira, eta ez Udaletxetik orain arte egiten zen bezala. Berrikuntza hau 2005eko egutegi fiskalaren barruan sartzen da, eta, aurrerantzean, sei hilean behin ordainduko dira ur tasak.

Edozein gestio edo galdera egiteko herritar guztien esku daude Udaletxeko telefonoak edota 902 302 222 telefono zenbakia ere.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Atzegik bolondresak behar ditu

Gipuzkoako Gutxitu Intelektualen erakundeak (Atzegi) lanerako bolondresak behar ditu. Erakunde honek Gipuzkoako 11 herritan dauzka egoitzak, eta beren helburuak burutzeko ezinbestekoak dira bolondresak. Interesatuak 943 42 39 42 telefonora deitu dezakete.

### Udan ume errusiarrek ekartzeko kanpaina

Errusiako egoera gogorra dela-eta, oso garrantzitsua da bertako umeentzat uda Errusiatik kanpora pasatzea. Haur hauek udako beroa eta, batez ere, familiako berotasuna behar dute. Eskaria egiteko epea otsailaren 28an bukatzen da. Interesatuak 656748506 (Isa) telefonoan jaso dezakete informazio gehiago.

### Merkatu Plazako zozketa

Ibai-Ondo jatetxean, bi lagunentzako bi afari zozketatu dituzte. Irabazleak Agurtzane Epelde eta Emi Martin izan dira.



### Errosario kaleko zozketa

Gurutz Astigarraga izan da San Anton jaietan Errosario kalean eginiko zozketaren irabazlea. Errosario kaleko merkatarien opariz osatutako otarre bat jaso du. Zorionak!



# Inkesta

Europako Konstituzioari buruzko erreferenduma egingo da otsailaren 20an

## Herri-galdeketa parte hartzeko asmorik ba al duzu?

**PILI LARRAÑAGA**

Etxekoandrea

39 urte



“Ez. Aspaldiko partez ez dut botorik emango. Oso iritzi desberdinak daude, eta ez daukat batere argi. Gainera oso urruti tokatzen zaigula iruditzen zait.”

**IÑAKI MAYAN**

Elektrikaria

26 urte



“Ez. Europako Konstituzioari buruz oso informazio gutxi daukat. Normalean sekula ez dut botorik ematen, eta Europarako izanik, oraingoan gutxiago.”

**JURGEN STOCKERT**

Ekonomilaria

39 urte



“Hartuko nuke parte, baina alemaniarra naizenez ez didate uzten. Pertsonalki gaia interesatzen zait eta informatu egin naiz, baina informazio gutxi eman dute.”

**PEDRO SAN MARTIN**

Mandrinadorea

53 urte



“Ez, ez zait politika interesatzen. Politikoez asko hitz egiten dute, baina gero ez dute esandakoa betetzen. Normalean ez dut hauteskuntzetan parte hartzen.”

## [ BAI ala EZ ]

### Ba al duzu ohiturarik San Balentin eguna ospatzeko?

**BAI %1**

**EZ %99**

“Urtean zehar San Balentin eguna ia larunbatero izaten da guretzako baina otsailaren 14a iristean ere ospatzen dugu. San Balentin izpiritua urte osoan eduki behar da. Eta detaileak urte osoan eduki behar dira. Politena hori da.”

“Ez dut inoiz ospatu. Gaur (14a) ez diot oparirik egingo nire bikoteari, goizean esnatu eta ez diot esan “maitte zaitut” San Balentin dalako. Egunero bezela eman diogu musu alkarri, eta egunero bezela etorri naiz lanera. Noñozeria iruditzen zait denok egun batean jartzea maitasuna kontsumitzen.”

Datorren asterako....

*Kutsadura gutxitzen ez bada, 50 urte barru tenperaturak 5 graduko igoera izan dezake.*

**Egiten al duzu ezer kutsadura gutxitzeko?**

Erantzunak: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) edo Barreneko postontzian.

## JOSE ZUAZUBIZKAR BARRETERAPIAKO MONITOREA

# «Barre eginda, mina kentzea lortzen da»



*Jose Zuazubizkar elgoibartarrak, Barreterapiaren nondik norakoak azaldu dizkigu. Terapia hau askorentzat oraindik ezezaguna den arren, Euskal Herrian badira terapia honen jarraitzaileak. Jose eta bere taldekoak hilean behin elkartzen dira Aubixa baserrian terapia hau burutzeko. Datorren saioa, otsailaren 20an izango da.*

### 🦶 Zer da Barreterapia?

Norberak bere bizitzako une batean, eta faktore ezberdinen ondorioz, bizi duen egoera zail bati aurre egiten lagundu diezaiokeen terapia da. Barreterapiak edozein pertsona gaizki dagoenean, gauzak bestelako ikuspuntu batetik begiratzen irakats diezaioke, bere egoera emozionala aldaraziz. Horretarako tresna nagusia barrea da.

### 🦶 Nondik dator?

Barreterapiaren inguruko liburu eta artikuluak aspaldidanik daude. Duela 30 bat urte, Ameriketako zientzia aldizkari batean argitaratua izan zen gizon baten testigantzak ohiartzun handia izan zuen mundu osoan. Gizonezko hau oso gaixorik zegoen eta sendagileek bere bizia salbatzeko ez zuten inolako itxaropenik. Gizonezko honek, barreterapiaren berri izan zuenean, eta bestelako irtenbiderik ezean, probatzea erabaki zuen. Sinestezina badirudi ere, sendatu egin zen. Orduz geroztik, zientziak eta sendagileek berreskuratu egin dute terapia hau. Orain arteko emaitza onak ikusirik, pixkanaka hasi dira atzeriko nahiz espainiar estatuko ospitale eta psikiatra etxeetan barreterapia barneratzen. Esaterako, Bartzelonako zentru garrantzitsu batean.

### 🦶 Noiz eta non izan zenuen Barreterapiaren berri?

Estreinakoz duela hamar bat urte artikulu batean. Berandago, bi liburu eskuratu nituen. "Honek bere indarra badaka", pentsatu nuen neure baitan. Ondoren, neroni partaide naizen Eibarko taldean planteatu nuen ia zergaitik ez genuen terapia hau probatzen. Kuriositateak eta besteei zein norbere buruari laguntzeko gogoak bultzatu ninduen honetan buru belarri satzera.

«Presioarentzat  
eta antsietate-  
arentzat oso  
ona da»

### 🦶 Zein motatako gaixotasunei aurre egiten lagun dezake?

Teknikoki denerako ona dela esaten dute. Depresio, antsietate, eta estresarentzat, besteak beste. Gakoa irribarre egitean dago, nahiz eta hasiera

batean gogoz kontra egin, barre eginda mina kentzea lortzen duzu. Algararekin errekuperatzen hasten zara. Algara egitean gorputzaren lauhun gihar inguru mugitzen dira. Horrela personaren portaeran aldaketa gertatzen da.

### 🦶 Ze ariketa mota egiten da?

Lehenbizi barreterapiaren azalpen bat eskaintzen da. Ariketak modu askotakoak izan daitezke, adibidez, denbora batez pertsona bati aurrez aurre begiratu egotea. Edo pertsona bati imitatzeko esaten zaio, keinuen bidez sentimendu desberdinak adierazteko. Jokuen, espresioen eta musikaren bidez, erredikulu sentsazioa uxatzea bilatzen da. Badaude ariketa teknikoak ere: barre egiteko era desberdinek ("Ja, je, ji, jo, ju") eragin ezberdina dute gorputzeko atal bakoitzean.

### 🦶 Zenbaterainoko eragina du?

Gaixotasunei dagokionez, gaitz asko sendatzen lagun dezake, eta neronek hainbat kasu ezagutzen ditut. Orohar, jendea gustora geratzen da eta aldaketak nabaritzen ditu. Emaitzak nabaritzeko jarraipena egin behar da. Interesa duen edonor terapia hau probatzera animatuko nuke

ESTHER GURRUTXAGA



**MATTEO CANTÚ**  
ITALIA [EUROPA]

## «Milanen baino erlazio gehiago dago Euskal Herrian jendearen artean»



MATTEO CANTÚ, CERNUSCO SUL NAVIGLION, MILAN ONDOKO HERRI TXIKI BATEAN, JAIO ZEN ORAIN DELA 28 URTE. DUELA BI URTE ETA ERDI NESKALAGUN ELGOIBARTARRAREN HERRIA EZAGUTZERA ETORRI ETA HILABETE ETA ERDI EGIN ZUEN HEMEN. ASKO GUSTATU ZITZAION HEMENGO BIZIMODUA ETA MILANEN DENBORALDI BATEAN BIZI OSTEAN, IAZKO MARTXOTIK BIZI DA GURE ARTEAN ITALIAR ALAI HAU.

### 👤 Zer egiten du italiar batek Elgoibarren?

Funtsean neskalaguna hemengoa delako nago Elgoibarren. Aurrez bera etorri zen Milanera eta urte eta erdi egin genuen elkarrekin bizitzen, baina Milan biori gustatzen ez zitzaigunez, ba hementxe nago!

### 👤 Nolako da bada Milaneko bizimodua?

Milanez Madrilen antz handia du. Era guztietako zerbitzu eta dibertsioak eskaintzen dituen hiria da, baina ez da nik bilatzen dudana. Mendia, hondartza... natura gustatzen zait. Hori errazago aurki dezaket hemen. Lana balio gisa hartzen dute han ere, baina hemen erlaxatuago bizi zarete, kompetentzia gutxiago dago.

### 👤 Zaila izan al zen Milan lagatzea?

Erabakia hartzea ez gehiegi, bai ordea, hango bizimodua, familia, lagunak eta lan on bat lagatzea. Neskalagunak itzultzea gustatuko litzaiokeela aipatu zidan eta nik ez nuen bizitza osoa Milanen pasa nahi.

### 👤 Nola hartu zaituzte Elgoibarren?

Izugarri ondo, eta ez dut ongi geratzearren esaten.

«Ez naiz italiar tipikoa, askok uste du euskalduna naizela»

Mundu guztiak esaten zidan euskaldunak orokorrean nahiko itxiak direla. Ane neskalagunaren inguru eta lagunei esker errazago bertakotu naiz eta zerbitzuetan ere laguntasun handia nabaritu dut. Adibidez, bankuetan pazientzia handiarekin azaltzen zikidaten gauzak, hasieran ez bainuen gaztelera menderatzen. Milanen presa gehiago dago eta tratu pertsonala ez da horrenbeste aintzat hartzen.

### 👤 Zertan diharduzu hemen?

Ingurugiroko ingeniari-tza ikasi nuen. Portu bide eta kanaletako ingeniari-tza litzateke hemengo baliokidea,



betiere ingurugirorantz enfokatua. Halere, orain gestioan ari naiz lanean, enpresa aholkularia bainaiz. Ingurugiroaren kalitatea bermatzen duten gestio sistemak ezartzen ditut. Zorte handia izan dut lanarekin. 2004ko martxoaren 20an iritsi nintzen eta apirilaren 5erako lanean nengoen jada. Italian antzerako lana nuen, baina sormena gehiago lantzeko aukera ematen zidan. Dena dela, ez naiz kexu lana izatea luxu bat baita egun.

#### 🚶 Zer ezberdintasun aurkitu dituzu?

Kalean giro gehiago eta arteko erlazio gehiago dago. Milanen, batzuetan, ordu eta erdi ibili behar da lagun batekin geratzeko eta hiru eguneko aurrerapenaz egin zitak. Hemen, berriz, nahi izango banu beti aurkituko nuke norbait astebarruan ateratzeko. Bestalde, mendiak eta natura eskura ditut hemen. San Pedrorra igo eta baserri giroa ikustea izugarria da. Milan, berriz, lava da, nahiz eta Alpeak ordu eta erdira dauden.

#### 🚶 Harritu zaituen zerbait?

Tradizioak askoz gehiago kontserbatzen direla eta herrietako jaietan herriarrek duten parte hartzea. Bestalde, oso nobleak zarete. Balore finkoak dituzue, eta errespetatu egiten dira. Gauzarik txikienetan ikus daiteke. Italiar lagun batzuk, esaterako, txundituta geratu ziren pintxoak ordaintzeko moduarekin. Beste leku batzuetan baino gehiago fido da jendea urkoarengan.

#### 🚶 Euskara ikasten ere hasi zara.

Bai. Urrian hasi nintzen. Hizkuntzak gogoko ditut eta euskara ezinbestekoa iruditzen zait Elgoibarren bizitzeko eta euskal kulturaren murgiltzeko. Ez dut nire

jatorria galdu nahi, baina euskal kulturara ahalik gehien hurbildu nahi dut. Gainera, ez naiz eroso sentitzen ingurukoak nigatik erdaraz hasten direnean.

#### 🚶 Zer esaten dizu jendeak italiarra zarela ohartzean?

Askok italiarrez dakizkiten bizpailu berbak botatzen dizkidate. Kuriositate handia du jendeak eta gogoko dut galdetzea. Bestalde, jendeak aurreiritzi bat du egina italiarrez, eguzkitako betaurrekoak, markako arropa, gomina... baina ni ez naiz estereotipo horretan sartzen. Zu italiarra? harritzen da mundu guztia. Baina egia da italiar asko horrelakoak direla. Euskaldunekin berdind gertatzen da, ia denak mendiko arropekin janzten baizarete kalean (barrez). Jende askok bertakoa naizela uste du eta euskeraz hasten zait.



### ITALIA

- **Hiriburua:** Erroma
- **Azalera:** 301.338 km<sup>2</sup>
- **Biztanleria:** 57.844.017 (2001)
- **Dentsitatea:** 192 km<sup>2</sup>ko
- **Bizi itzaropena:** 79,12 urte
- **Erljioa:** Katolizismoa
- **Gobernua:** Demokrazia parlamentarioa



*Euskal kultura ahalik eta gehien ezagutu asmoz, urrian hasi zen euskara ikasten.*

# GAZTIA NAIZ

elkarriketa...



## Iban Guinea

“LA OSTRA AZUL” DISKOA ATERA BERRI DU ACIDO C TALDEAK. ZAZPI MUTIL GAZTEK OSATZEN DUTE TALDEA, ETA BERAIEAN ARTEAN ELGOIBARTAR BAT AURKITU DUGU: IBAN GUINEA. MUSIKA BEREZIA EGITEN DUTE, EZ DAUKATE ABESLARIK, BAINA ENTZULEAK DANTZAN JARTZEN DITUZTE. BERAK KONTATU DIZKIGU TALDEAREN AZKEN BERRIAK.

“Diskoaren 1.000 ale bi hilabetetan saldu ditugu”

### Zer aurkituko dugu “La ostra azul” diskoan?

Ordu erdiko diskoa da. Dantza egiteko musika alaia aurkituko dugu, batez ere. Diskillo edo maketon deitzen diogu. Hasiera batean maketa bat grabatzeko asmoa geneukan taldea promozionatzeko, baina azkenean diskotik gertuago dagoela uste dugu. Zazpi abestiz osatuta dago.

### Nolako harrera izan du?

Oso ona. Salmentak uste genuena baino askoz hobeto joan dira. 1.000 kopia atera genituen, eta pare bat hilabetetan denak saldu ditugu. Orain, Madrilgo produktore batekin beste 1.000 kopia aterako ditugu Estatuan zehar saltzeko. Ez da erraza izango aurrerantzean disko hau lortzea.

### Noiz sortu zenuten taldea?

Duela bi urte eta erdi hasi ginen. Taldeko beste hiru partaide ezagutzen nituen. Reggae talde batean jotzen genuen elkarrekin, eta talde hura desegin zenean proiektu berri bati ekin genion.

### Reggaetik fankyra?

Bai, gehiago gustatzen zitzaigun

fankya reggaea baino, eta bide horretatik jo genuen. Donostiako gitarrojole eta baxujole batekin eta Errenteriko perkusionista batekin elkartuz sortu genuen Acido C taldea.

### Nondik dator Acido C izena?

Berez bi lekutatik etor daiteke izena. Batetik, acid-jazz musika e g i t e n



dugunez, horrekin zerikusia zeukan izenen bat jartzea pentsatu genuen. Bestalde, AC/DC taldearen antza dauka ahoskatzerakoan, eta belarrira ondo ematen du.

Taldekideon artean izenak botatzen hasi ginen eta hauxe gustatu zitzaigun gehiena. Ez dauka beste munduko esanahirik.

### Zein musika estilo egiten duzue?

70. hamarkadako fanky-dance musika, jazz edo acid-jazz deitzen denarekin nahastuta. Oso musika alaia, dantza egiteko eta entzuteko oso erraza da.

### Harrera ona al dauka musika honek Euskal Herrian?

Momentuz behintzat, gu oso ondo hartu gaituzte. Publikoa oso gustura egoten da gure musika entzuten. Niri jende gehienak oso disko ona egin dugula komentatu dit.

### Zein instrumentu jotzen dituzue?

Zazpi lagun, eta zazpi instrumentu. Tronboia, saxofoia, tronpeta, bateria, gitarra, baxua eta perkusioa.

### Ez daukazue abeslariarik, ezta?

Ez, gure musika instrumentala da, batez ere. Zenbait abestitan esaldiren bat abesten dugu. Guk geuk egiten ditugu koroak, eta ez gara oso onak abesten, baina letrari ez diogu garrantzia



# BARREN



gehiegirik ematen. Hasieran egin genuen proba abeslariarekin, baina ez zitzaigun gustatu.

## Non entsaiatzen duzue?

Donostiako Loiola auzoan daukagu lokala, eliza azpian, eta meza dagoenean entsaiatzea debekatuta daukagu. Zazpi lagun elkartzea ez da erraza izaten.

## Nola sortzen dituzue abestiak?

Lehenengo gitarrak, baxuak eta bateriak oinarria egiten dute, eta ondoren haizezko instrumentuek melodia gaineratzen diote. Ez dugu ezer idazten, dena inprobisatuta izaten da. Abestiak ikasteko grabatu egiten ditugu.

## Jende aurrean estreinatu al zarete?

Bai, dagoeneko 35 kontzertu inguru eman ditugu. Gehienak Donostia inguruan izan dira, baina aurrerantzean Madrilgo produktore batekin estatu mailan ere eskainiko ditugu kontzertuak.

## Noiz ikusiko zaituztegu Elgoibarren?

Eskaintza bat egin digute maiatzerako, baina egun berean beste

kontzertu bat daukagu eta oraindik konfirmatu gabe daukagu. Nik badaukat Elgoibarren jotzeko gogo, ilusio handia egingo lidake, baina aldi berean lotsa pixkat ere ematen dit.

## Tronboia jotzen duzu. Oraindik musika ikasten?

Bai, tronboi karrera bukatuta daukat, eta orain tronboi-jazz espezialitatea egiten ari naiz Musikenen. 9 urte nituenetik ari naiz musika ikasten.

## Epe laburrean, zein dira zure proiektuak?

Datorren urtean Roterdameko (Holanda) musika eskolara joatea gustatuko litzaidake. Tronboi irakasle oso ona dago bertan, eta ahal badut behintzat joango naiz. Probak egin behar ditut, eta hartzen banaute, taldea utzi beharko nuke.

## Profesionalki musikaz bizi daiteke?

Bai, irakasle moduan seguru baietz. Niri urtero eskaintzen didate klaseak emateko aukera, baina niri musika jotzen bizitzea gustatuko litzaidake, eta hori zailagoa da.

## Aister...

### ARIMA BELTZA



Abuztuan sartuko dira estudioan, eta beraien asmoa Durangoko Azoka baino apur bat lehenago disko berria kaleratzea da. Kantak eginak dituzte, eta konponketak egiten ari dira. 10 abestiz osatuta, ikutu rockeroa izango du diskoak.

### ATERKINGS



Alberto Gonzalez eta Martxelo Mendizabal elgoibartarrek "Rock n' Roll" izeneko diskoa kaleratuko dute Aterkings taldearekin. Martxoaren 10ean kalean izango da. Rock estiloko 16 kantaz osatutako diskoa izango da.

### CAFE TEATRO




Iban Urizarrek bere bigarren diskoa kaleratu du Cafe Teatro taldearekin. Inprobisazio handiko bost abestik osatzen dute diskoa. Iban Guineak tronboiarekin eta Ander Mujikak fagotarekin parte hartu dute disko honetan.



**SABIN OSORO** ARGAZKILARIA

## «Eskuen argazkiak erabili ditut arabiar herrialdeari diodan begirunea adierazteko»



*Sabin Osorok bere bi afizio uztartu ditu: bidaiatzea eta argazkilaritza. Yemenen, arabiar penintsulako herrialdean ateratako argazkiez osatutako erakusketa da zaletasun bien baturaren emaitza. Kultur Etxean dago ikusgai otsailaren 26ra bitartean.*

✦ **Yemen ez da oso ezaguna gure artean.**

Bidaiazaleen artean herrialde deigarria da. Bai arkitektura mailan eta bai historiari dagokionez. Bertako eraikuntzak ez daude beste inon, zazpi solairuko adobezko etxeak, esaterako. Bestalde historia aberatsa du. Sabako erreinuaren jaioterria da, herrialde arabiarrek batu zituen eta Islamaren sorrera baliabidetu zuena.

✦ **Ba al dago yemendarren bizimodua gurearekin konparatzerik?**

Ezberdintasun handiak daude. Askotan ez gara konturatzen zenbat erraztasun dauzkagun. Hala ere, beste maila batzuetan, balore asko galdu ditugula konturatzeko balio du, balore pertsonalak batez ere. Gure artean nagusi den balore bakarra dirua da.

✦ **Zer daukate euskaldunoi erakusteko modukoa?**

Bi herrialdeok gara abegikorrek, baina arabiarren abegikortasuna gehiegizkoa da zenbaitzutan. Egoera bereziak bizitzea tokatu zait. Familia baten sartu eta gazte bati zirkunsizioa egiteko jaietan parte hartzea gonbidatu ninduten. Familia barruko jai batean muturrak sartzea gehiegi iruditu zitzaidan, baina beraiek gaizki hartu zuten nire ezezkoa. Bestalde, errekurtsio gutxi aduki arren, jendea beti dago daukanarekin laguntzeko prest.

✦ **Trabarik izan al duzu?**

Emakumeei argazkiak ateratzea zaila zen batzuetan. Familiakoren bati baimena eskatu behar zitzaion.

✦ **Gizonezkoek labanak ei daramatzate gerri bueltan.**

Gaztetasunetik heldutasunerako pausoa adierazten du. Apaingarri gisa erabiltzen dute, janzkeraren parte bat da. Bestalde, kalean ikus daitekeen arma kopuruak harritu ninduen. Ohikoa da Kalasnikov-ak ikustea. Gobernuek arma mordoak banatu zituen herrialdea bitan banatu zuen guda zibilean, eta orain berri batu nahi dituzte.

✦ **Gustatu zaizun ohitura bat?**

Kat deituriko landare pizgarria maste-katzeko ohitura dago. Biztanlegoaren %80ak hartzen du, baina gobernuek kontsumoa jaitsi nahi du. Kat-a hartu ostean irria da nagusi eta bero ikaragarria, 55 gradu batzuetan!

✦ **Eskuak dira protagonistak?**

Etiopiar buruzko erakusketan aurpegiak eta begiradak ziren elementurik erakargarrienak. Yemenekoan ez ditut baztertu, baina bide berriak urratuz ezkutuko elementuak jarri ditut kamara aurrean: herriak, kaleak, etxeak eta, batez ere, eskuak. Arabiar herriari nire esker ona adierazi nahi nion eta eskuei ateratako argazkiak erabili ditut arabiar herriari diodan begirunea isladatzeko.

«Emakumeei argazkia ateratzeko baimena eskatu behar nuen»

## IV. AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA

### Elgoibarko IV. Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketa asteburuan

Zapatu eta domeka honetan, hilaren 19an eta 20an ospatuko da "Elgoibarko IV. Aurresku eta Soinu zahar Txapelketa" Herriko Antzokian. Zapatuan (16:30) A saileko neska-mutilak (7-11 urte) lehiatuko dira. Zazpi elgoibartarrek parte hartuko dute sail honetan. Nesken sailean lau elgoibartarrek egingo dute dantza. Iaz Amaia Astigarragak irabazi zuen sail honetako Elgoibarko saioa eta bigarren postuan sailkatu zen Legazpin jokatu zen finalean. Sailkapen nagusiko lehen postua beste elgoibartar batentzat izan zen, Maria Ferreirorentzat, hain zuzen ere. Otsailaren 20an, B sailekoen (11-15 urte) txanda hasiko da 11:00etan. Elgoibartik hiru dantzari arituko dira mutilen mailan eta Dorleta Fernandez izango da neska elgoibartar bakarra.



izango da datorren barixakuan, otsailaren 25ean, Musika Eskolako auditorioan (19:00). Urtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute jendaurrean musikari gazteek.

#### Talde Instrumentalen kontzertua

Bestalde, Inazio Bereziartua Musika Eskolako Talde Instrumentalen kontzertua

#### Mikel Zengotitaren argazkiak Azpeitian sarituak

Mikel Zengotiita elgoibartarrak irabazi ditu Azpeitiko Argazki Elkarteak antolatutako XIV. Santo Tomasetako Argazki Lehiaketako helduen mailako lehen bi sariak. Azkoitian bizi den elgoibartarraren argazki sarituak Azpeitiko udaletxe azpiko aretoan izango dira ikusgai, aurkeztutako beste argazki guztiekin batera antolatutako erakusketan, otsailaren 26ra bitartean. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



## Lanbroa



Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
Xixilon, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**karkizano**  
San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49  
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 2 - San Pedro 0 (3. maila)  
 Elgoibar 2 - Amaiak Bat 1 (1. erreg.)  
 Tolosa 4 - Elgoibar 1 (Jub.)  
 Lengokoak 3 - Elgoibar 3 (Inf. A.)  
 Elgoibar 1 - Aretxabaleta 0 (Inf. B.)  
 Elgoibar 0 - Eibartarrak 1 (Neskak)  
 Urki 2 - Elgoibar 3 (Neskak F8)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg 5 - Ituriondo Izkara 3 (Nazional B)  
 Toletxe 4 - Aloña Mendi 6 (Jub.)

### PILOTA

#### Euskal Herriko Liga

Lagunak 20 - Argia 22 (Jub. banaka)  
 Erreka 30 - Lagunak 10 (Jub. nesk. palaz)

#### Udaberi Txapelketa

Lagunak 22 - Ilunpe 6 (Nag. 1. maila)  
 Andatzpe 19 - Lagunak 22 (Nag. 2. maila)  
 San Esteban 21 - Lagunak 22 (kad. 2. maila)

### ESKUBALOIA

Sanlo 6 - Aloña Mendi 26 (Inf. nes.)  
 Arrate 21 - Umobitza Sanlo 19 (Inf. mut.)  
 Pagoaga Sanlo 18 - Eharialde 13 (Jub. nes.)  
 Cometel Sanlo 20 - Eharialde 15 (Jub. nes.)  
 Hondarribi 36 - Tecnomeca Sanlo 30 (Kad. mut.)  
 Pneumax Sanlo 12 - Aitxuri 18 (Jub. mut.)  
 Elorio 19 - Sanlo 28 (Sen. nes.)  
 Pulpo 26 - ANTT Sanlo 24 (Sen. nes.)  
 Ereintza 29 - Tecnifuelle 22 (Sen. mut.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 19

12:30 Elgoibar - Almen (Neskak F8)

18:30 Elgoibar - Lagun Onak (Jub.)

Domekia, 20

12:15 Elgoibar - Antiguoko (Inf. A)

### ESKU PILOTA, Ikastolako frontoian

#### Udaberi Txapelketa

Barixakua, 18

22:00 Lagunak - Lazkao (Kad.)

22:45 Lagunak - Behar Zana (Nag.)

### ARETO FUTBOLA, Kiroldegian

Zapatua, 19

13:00 Toletxe - Colegio Aleman (Jub.)

16:00 Kenci Elg - Ituriondo Izkara (Nazional B)

### ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 19

16:30 Sanlo - San Adrian (Sen. nes.)

18:00 Tecnifuelle - Dam-Lea (Sen. mut.)

19:30 Tecnomeca Sanlo - Zarautz (kad. mut.)

Domekia, 20

9:00 ANTT Sanlo - BKL-CAF (Sen. mut.)

10:30 Pagoaga Sanlo - Ermua (Kad. nes.)

12:00 Cometel Sanlo - Ermua (Jub. nes.)

## EUSKADIKO ARKU TIRO TXAPELKETA

# Iñaki Badiola 4. postuan sailkatu zen



18 metroko modalitatean parte hartu zuen Badiolak.

Zarta Arkulari Kirol Elkarteak Iñaki Badiola elgoibartarra sailkapen nagusiko laugarren postuan sailkatu zen Euskadiko Arku Tiro Txapelketan. Amurrión (Araba) jokatu zen txapelketan Euskadi guzitiak joandako 120 lagunek parte hartu zuten maila ezberdinetan, aurreko urteetan baino altuagoa izan zen, hortaz, partaidetza. Badiolak 18 metroko

distantzian parte hartu zuen arku errekurbatuarekin. Hau ez da Euskadiko txapelketan lortu duen posturik onena izan, iaz bigarren postuan sailkatu baitzen Tolosan jokaturakoan. Orain aire libreko arku txapelketatan parte hartzen hasiko da Badiola. Modalitate honetan geziak jauritzeko distantziak luzatzen dira eta dianak 30, 50 eta 90 metrora jartzen dira.



## "Metarik gabeko bidaia" diapositiba emanaldia hilaren 24an

Izaskun Arozenak eta Txotxek Ameriketako zehar urtebetez egin zuten bidaiaren emaitza da "Metarik gabeko bidaia" diapositiba emanaldia. Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, otsailaren 24an, ostegunean, ikusi ahal izango dugu elgoibartarrak emanaldia Inazio Bereziartua Musika eskolako auditorioan (21:30). Ameriketako 11 herrialdetan jasotako bizipenak eta inpresioak azalduko ditu bikote honek.

**EUROPAKO KONSTITUZIO HONI**



**BESTE EUROPA BEHARREZKOA DA**  
**igandean, hilak 20, bozkatu EZ!**

**ELA, LAB, STEE-EILAS, EINBIOU, GAZTE ASANBLADA, EZKER BATUA-BERDEAK, BATASUNA, ASKATASUNA**

## OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Arrasateko enpresak **ingeles irakaslea** behar du. Erref. 162005000955
- Bergarako enpresak **frantsez irakaslea** behar du. Erref. 162005001499
- Zarauzko enpresak **altzariak lantzeko pertsona** behar du. Erref. 162005001381
- Arrasateko enpresak **promotorea** behar du. Erref. 162005001400
- Aretxabaletako enpresak **kamioi gidaria** behar du. Erref. 162005001360
- Debako enpresak **hormigoietarako langilea** behar du. Erref. 162005000594
- Debako enpresak **pala kargatzeko langilea** behar du. Erref. 162005000589
- Eibarko enpresak **elektrikaria** behar du. Erref. 162005000294
- Zestoako enpresak **albaitaria** behar du. Erref. 162005001039
- Zumaiako enpresak **soldadorea** behar du. Erref. 162005000801

Hautagai moduan sartzeko eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## [LANA]

### ESKAERA

- † Emakumea garbiketa lanak egin, haur edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **630 46 21 27**
- † 19 urteko neska aste bukaeretan lan egiteko prest. ☎ **676 31 65 90**
- † Neska goizez Elgoibar edo Eibarren lan egiteko prest. ☎ **645 72 38 00**
- † Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, edo etxeko lanetarako prest. ☎ **620 363 824**
- † Emakumea lanerako prest. ☎ **677 05 99 99**
- † Emakumea edozein lan egiteko prest. Arratsalde, 14:30-17:00. ☎ **665 755 211**
- † Soldadorea eta 2. mailako ofiziala, Elgoibar, Eibar edo Deban lan egiteko prest. ☎ **661 225 149**
- † Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, edo etxeko lanetarako prest. ☎ **660 92 75 66**
- † Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarateak...), edo etxeko lanetarako prest. ☎ **600 28 27 93**
- † Erizain laguntzailea gaixoak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean, gau edo egunez. ☎ **686 226 274**
- † Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarateak...), nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. ☎ **618 37 91 47**

### ESKAINITZA

- † Kamareroa behar da. ☎ **943 74 10 12**
- † Mutil euskalduna behar da asteburuetan barran lan egiteko. ☎ **670 654 921**
- † Euskaraz dakien neska behar da dendan lan egiteko. ☎ **943 74 36 08**
- † Kamareroa behar da egunero lan egiteko. Kontratua eta oporrek. ☎ **652 77 82 60**
- † Neska behar da jatetxean eta barran lan egiteko. ☎ **635 75 16 42**

## [ETXEBIZITZAK]

### SALMENTA

- † Etxea salgai Urasandin. 90m<sup>2</sup>. Dena kanpora begira. Terraza, bi komun, 3 logela, egongela. ☎ **943 74 08 26**
- † Etxea salgai Sigman. Sukaldea, komuna, bi logela. Berritua. ☎ **943 74 27 60**
- † Etxe berritua salgai Sigman. Prezio onean. ☎ **943 74 29 21/685 76 61 54**
- † Etxe berria salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garaiea, entreplanta eta txokoa. ☎ **615 77 99 20**
- † Atikoa salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna, trastero handia eta igogailua. ☎ **656 72 44 01**
- † Etxea salgai erdialdean. Berritua, gas naturala, berogailua, sukaldea, trasteroa. 74m<sup>2</sup>. Kanpora begira. Salneurria adosteko. ☎ **615 78 44 15**
- † Etxea salgai Errosario kalean. Berritua, altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, despentsa, berogailu zentrala. Prezioa adosteko. ☎ **699 17 98 72/943 74 02 68**
- † Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
- † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m<sup>2</sup>. Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia eta garaiea. ☎ **687 23 58 39**
- † Etxea salgai San Frantzisko kalean. Sukaldea, egongela, komuna, bi logela, despentsa. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezioa adosteko. ☎ **699 29 36 13**
- † Pisua salgai Artetxen (Inñigez de Karkizano kalean). Berritua, altzariekin, dena kanpora begira, ganbararekin. ☎ **627 94 12 61**

### ALOKAIRUA

- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **627 60 34 38 (Maria)**

## [PARTIKULARRAK]

- † Ingelesezko klase partikularrak ematen dira etxean. ☎ **606 73 38 50 (Carlos)**

## [SALEROSKETAK]

- † Sukaldeko eta egongelako altzariak salgai. Oso oso merke. ☎ **649 03 12 71**
- † Phillips minikatea salgai. 3cd, 260 watt. 210 euro. Samsung bideoa salgai. 60 euro. ☎ **696 89 60 88**
- † Renault Clio Dci autoa salgai. ABS, 2 airbag, direkzio asistitua, elektrikoa. 2002koa. 100.000km. ☎ **660 551 534**
- † Aspiragailu industrialak salgai. 3 motore. Berria, merke. ☎ **615 79 50 12 (Andere)**
- † Piragua salgai kubre eta palarekin. Txaleko eta txamarra opari. ☎ **653 716 306**
- † Errepiderako bizikleta salgai. Winer, grupo campagnolo xenon. Urtebete. 400 euro. ☎ **639 312 388**
- † Hozkailu-izozkailua salgai. 1,42m alturan/0,43 zabalera. Bi ate. Egoera onean. 72 euro. ☎ **943 74 32 46**
- † Citroen C2, 1.4 autoa salgai. 2 urteko garantia. Merke. ☎ **943 74 23 63**
- † Bikientzako kotxe silla salgai. Inglesina markakoa. (silla, grupo 0, zakuak, burbujak...) ☎ **636 12 95 43**
- † BMW 330 D autoa salgai. Nazionala. Ondo zaindua. Beti garaiean. Extra aska. ☎ **943 74 00 36/609 494 128**

## [GARAJEAK]

- † Garaiea salgai Pedro Mugaruzan. ☎ **943 53 00 39/645 72 79 11**
- † Garaie itxia salgai Madalan. 28m<sup>2</sup>. ☎ **646 50 28 66 (arratsaldez)**
- † Garaie itxia salgai Urasandin. ☎ **943 74 24 06**
- † Garaie itxia alokatzen da San Roken. 34m<sup>2</sup>. ☎ **943 74 17 02**

## [LOKALAK]

- † Gazte koadrila batek lokala hartuko luke alokairuan. ☎ **678 118 695**

## [BESTERIK]

- † Zinean giltz batzuk aurkitu genituen hilaren 30ean. Udaltzaingoa daude. † Utamilarren 6an Trenbide eta Bernardo Ezenarro kalean artean kamiseta temikoa galdu nuen. Urdin iluna, Helly Hansen markakoa. ☎ **610 904 371**

# Giauto

GIPUZKOA AUTOAK

Otaola Etor., 27  
943 202500 - EIBAR

Karobi Pol., z/g  
943 88 51 50 - OLABERRIA

clientes@giauto.es



AUTO BERA,  
MERKEAKO

Harrerarako telefonoa  
**902 345 225**

www.chevrolet.es



## [AGURRAK]



† Zorionak **Borja**, hilaren 22an 14 urte beteko dituzulako. Gurasoen, anaia Ignacio, osaba eta lehen-gusu Mikelen partez.



† Zorionak **Itigo**, otsailaren 19an 3 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez oso ondo pasa eguna polit hori!



† Zorionak **entrenatzaile!** Elkarrekin ospatzeko zain gaude. Muxutuak, eta azkar sendatu. Pilar Ikastetxeko neskamutilak.



† Zorionak **Kristina**, atzo, hilak 17, 13 urte egin zenituelako. Familiakoen eta lagunen partez.



† Zorionak **lanire** hilaren 12an 5 urte bete zenituelako. Aita, ama eta lkerren partez muxu handi bat.



† Zorionak **Maddi**, atzo, hilak 17, bi urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Julen**, hilaren 20an 5 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Sofia eta Andrearen partez.



† Zorionak **bikotel** hilaren 18an eta 19an urtebetetze berri bat duzelako. Familiakoen partez.



† Zorionak **bikotel** bigarren urte hau ongi igaro dezazuela opa dizuete ikastolako laguntxoek.



† Zorionak **Lopiko jabea**. Gure agurrik beroenak. Top Sekret taldearen partez.



### LANA

#### BEGIRALE-POLTSA

Azpeiti eta Azkoitiko haur eta gazte programak garatzeko aisialdirako begirale-poltsa osatu nahi da. Oinarriak: gizarte zientzietan diplomaturia edo begirale titulua izatea. Bailerakoa izatea, EGA edo baliokidea eta esperientzia izatea. Aurkezteko epea: otsailak 25. Informazio gehiago: 943 026 027/ 943 15 71 61 telefonoetan.<

### LEHIAKETAK

#### SEXMETRAIA

Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak Sexmetraia 2005 lehiaketa jarri du martxan. Gizon eta emakumeen bizitzeko errealitate ezberdinak gizarteratu eta goraputu nahi dute Sexmetraiaren bitartez. Sariak: 600 eta 1.500 euro bitartean. Epea: ekainak 10. Informazio gehiago: 943 798010 telefonoan edo Arrasateko Udalean.

### PINTURA LEHIAKETA

Carsa-Artek antolatuta, Arte eta Teknologia III. Pintura Lehiaketa Nazionala antolatu da. Bi arlo daude: arte digitala eta pintura. Sariak 300 eta 3.600 euro artekoak dira. 18 urte beteak dituzten guztiek har dezakete parte. Epea: martxoak 31. Informazio gehiago eskuratzeko: 94 4805183 telefono zenbakian.

### SEXISMOARI STOP

Elgoibarko Biluzik sexologia zerbitzuak Sexismoari Stop pegatina lehiaketa antolatu du. 15 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte. Lanak papelean eta euskarri digitalean entregatu behar dira, anonimotasunean. Egilearen datuak gutunazal txikiago batean sartu behar dira. 200 euroko saria dago jokoan. Informazio gehiago 943 74 14 61 zenbakian edo biluzikzerbitzua@yahoo.es

### BEKAK

#### ARTE GARAIDEA

Arte Garaikideari buruzko proiektuak laguntzeko bekak banatuko dira. Doktoretza titulua lortzea helburu duten proiektuak izatea baloratuko da. Epea: martxoak 8.

### IKATAROAK

#### TAROT

Intxaurrendoko Otxoki taldeak tarotean hasi nahi dutenentzat ikastaroa antolatu du. Martxoaren 19an eta 20an izango da eta plazak bete arte eman ahal izango da izena.

### ELEKTRIZISTA

Hernaniko Institutuak antolatuta, langabezia daudenentzat. 260 orduko iraupena du. Plazak bete arte.

### ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es

☎ 943 741 461



Astearretik-ostiralera: 16:30-19:30



## [ OKINDEGIA ]



13 igandea FOTERO



## [ FARMAZIAK ]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
11	Bidasolo	Bidasolo	<b>IBÁÑEZ</b>
12	Etxeberria	Etxeberria	Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
13	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	<b>FERNANDEZ</b> Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
14	Fernandez	Fernandez	<b>ZABALETA</b>
15	Yudego	Yudego	Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
16	Zabaleta	Zabaleta	
17	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	
18	Ibañez	Ibañez	



## [ TELEFONOAK ]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Larrialdiak	943 46 11 11	Kiroldegia	943 74 44 15
Planning-a	943 74 29 50	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Liburutegia	943 74 35 25
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Musika Eskola	943 74 21 45
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Mintxeta	943 74 43 15
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Parrokia	943 74 08 42
Odol Emaileak	943 74 39 36	Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
UDALA		ADINEKOEN ETXEAK	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharen Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14	IKASTETXEAK	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udalzaingoa	943 74 13 94	LM.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua	
GARRAIOAK		Arreiturre	943 74 80 19
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
PESA (Eibar)	902 10 12 10	Ikastola	943 74 44 41
Taxi geltokia	943 74 08 98	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
Bizkaibus	902 222 265		



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

**Astegunak:** 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

**Igandeak eta jaiegunak:** 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

**Pesa:** 902 10 12 10

### DONOSTIA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

**Igandeak eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

**PESA:** 902 10 12 10

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### SIGMA - ARRIAGA

**Astegunak:** 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10

**Larunbat lanegunetan:** 8:00, 11:20, 12:20, 13:20

**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### ARRIAGA - SIGMA

**Astegunak:** 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00

**Larunbat lanegunetan:** 8:10, 11:10, 12:10, 13:10

**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

### ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

### DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

### ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

### EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 19 ZAPATUA ]

### 11:30 ATE IREKIEN EGUNA HERRI ESKOLAN

Eraikuntza nagusian

Tailerrak eta gaztelu puzgarriak

### 16:30 "ELGOIBARKO IV. AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA"

Herriko Antzokian

Antolatzailea: I. Bereziartua Musika Eskola

### 16:30 "PATXIN ETA POTXIN"

PAILAZOAK

Herri Eskolan

### 17:00 HITZALDIA

Gaia: Txinako medikuntza tradizionala

Aubixa Baserrian

# SINOPSISIAK

## «E l aviador»





## [ 20 DOMEKIA ]

### 9:00 MENDI IRTEERA

Nora: Arratera  
Irerera: Plaza handitik  
Antolatzailea: Herri Eskolako  
Kalamua Guraso Elkarteko Mendi  
Taldea

### 10:00 MENDI IRTEERA

Elgoibar Ikastolako ikasle eta  
gurasoentzat  
Nora: Egoarbitza (Elgeta)  
Irteera: Ikastolatik

### 10:00 BARRETERAPIA

Aubixa Baserrian  
Informazioa: 943 741715

### 11:00 "ELGOIBARKO IV. AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA"

Herriko Antzokian  
Antolatzailea: I. Bereziartua Musika  
Eskola

## [ 22 MARTITZENA ]

### 18:00 HITZALDIA

Gaia: Bizkarreko minak, zergatiak  
eta prebentzioa.  
Hizlaria: Michel M. Marmier,  
Chiroparctican doktorea  
Jubilatuen Biltokian  
Antolatzailea: Jubilatuen Biltokia

## [ 23 EGUAZTENA ]

### 18:30 IMHKO INGENIARITZAREN ATE IREKIEN EGUNA

Goi mailako ikasketen aurkezpena  
Ondoren, instalazioen bisita IMHn

## [ 24 EGUENA ]

### 19:30 IMANOL MURUAREN LIBURUAREN AURKEZPENA

Kultur Etxean  
Herritar guztiak daude gonbidatuta  
Antolatzailea: Eusko Alkartasuna

### 19:30 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Izenburua: "Metarik gabeko  
bidaia"  
Txotxe eta Izaskunen bidaia  
Ameriketan zehar  
I. Bereziartua Musika Eskolako  
auditorioan  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

## [ 25 BARIXAKUA ]

### 10:30 IMH EGUNA

Egun guztian zehar  
IMHn

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «El Aviador»

18, barixakua: 22:15  
19, zapatua: 19:00-22:15  
20, domekia: 19:00-22:15  
21, astelehena: 22:15

#### «El niño que quería ser oso»

20, domekia: 16:30  
«Contra la pared» (Z.K.)  
24, egueña: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «Ray»

18, barixakua: 19:30-22:15  
19, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
20, domekia: 17:00-19:30-22:30,  
21, astelehena: 19:30-22:15  
22, martitzena: 19:30-22:15  
23, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «largo domingo de noviazgo»

18, barixakua: 19:30-22:15  
19, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
20, domekia: 17:00-19:30-22:30,  
21, astelehena: 19:30-22:15  
22, martitzena: 19:30-22:15  
23, eguaztena: 19:30-22:15


BARREnek ez du gerta litezkeen  
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

Zuzendaria: Martin Scorsese.

Antzezleak: Leonardo DiCaprio, Cate Blanchett,  
Kate Beckinsale .

Howard Hughes, XX. mendeko pertsonaiarik  
liluragarrienetakoa izan zen: enpresa gizon  
adimentsua, filme zuzendari eta ekoizle ausarta eta  
guztien gainetik hegazkin pilotutzat zeukan bere  
burua. Eta bai izan ere, izugarri lagundu baitzuten  
bere ideia berritzaileek hegazkingintzaren  
bilakaeran. Aitarengandik jaso zuen dirutza  
hegazkingintzan eta zineman xahutu zituen.  
Katherine Hepburn edo Ava Gardner moduko zine  
izarren maitalea izan zen, baina buruko gaixotasun  
larriak ere izan zituen.

«Contra la pared» (Z.K.)



Zuzendaria: Fatih Akin.

Antzezleak: Birol Ünel, Sibel Kekilli.

Bere buruaz beste egiten saiatzeagatik dago  
Cahit, jatorri turkiarreko alemaniarra, klinika  
psikiatrikoan. Berriz hutsetik hasi nahi du, baina  
arima izutuak bere beldurra alkohol eta  
drogekin itotzera bultzatzen dute. Sibel, berriz,  
Cahiten jatorri bereko neska gazte polita da.  
Honi, gehiegi gustatzen zaio bizitza itxurazko  
musulmandarra izateko. Bere familia  
kontserbadorea eta fededuna gartzela modukoa  
da berarentzat eta ihes egiteko suizidio bat  
irudikatuko du. Askatasuna beharrean desohorea  
lortuko du.

# Atzera begira



**1993**. urte inguruko erretratu zahar hau herritar batek laga digu. Nahiz eta denak koadrila berekoak ez izan, herriko jubilatuen etxean elkartzen ziren. Futboleko ekipo bat moduan, hamaika lagunek urte horretako martxoan bildots jana egin zuten San Pedroko jatetxean. Argazkian ageri zaizkigu ondo bazkaldu ostean denak irribarrez. Gogora ditzagun zein diren bertan ageri direnak.

Goian, ezkerretik eskumara: **Dionisia Calleja**, **Mari Karmen Arriola (Intxaurre)**, **Julia Iriondo (Igartua)**, **Visitacion Garate (Lizarrola)**, **Salomé Zenarruzabeitia (Larruskain) (†)**, **Fulgencia Agirregomezkorta (Olaso) (†)** eta **Maria Etxabe (Karkizano)**

Behean, ezkerretik eskumara: **Celestina Etxaniz (Sukusu)**, **Maria Etxeberria (Azkarate)**, **Antonia Garate (Errebiro) (†)**, eta **Agustina Etxaniz (Sukusu)**.



## ESKERTZA

2005eko otsailaren 12an, 71 urte zituela hil zen  
*Milagros Velez Calvoren*  
(Tomas Peña Brizen alarguna) sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2005eko otsailaren 10ean, 44 urte zituela hil zen  
*Adelia Ramos Rabanos*  
"Zu ezagutzea erraza izan zen, oso zaila izango da abaztea".  
*Maite zaitugu.*

Zure lagunak



# gurekin **hasi**



# gurekin **hezi**

Haur Hezkuntza: 2 urtetik 6 urtera  
Lehen Hezkuntza: 6 urtetik 12 urtera  
DBH: 12 urtetik 16 urtera

Matrikulazio epea: otsailaren 14tik 24ra  
Ordutegia: 9'00etatik 19'00etara  
Argibideak: 943 741 331 telefonoan  
e-maila: [nsp42elg@planalfa.es](mailto:nsp42elg@planalfa.es)



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK: GEUREA

### MATRIKULAZIOA

2005 - 2006

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**OTSAILAREN 14tik 25era**



**Elgoibarko Herri Eskola**

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-posta: 012777aa@hezkuntza.net



**baikara**

HEZKUNTZA  
UNIBERTSITATEA  
IKERKETA SAILA



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA  
UNIBERTSITATEA  
IKERKETA SAILA



**Euskadi**  
2 0 0 4

**Elgoibarko Institutua**

San Roke, 11

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarhi.net